

LANGABEZIA. Araban izan dituzte datu kaskarrenak, %9,7 hazi baita bertan langabezia urteko aurreneko hilean

Urtarrilean 5.164 lagun gehiago gelditu dira lanik gabe Hegoaldean

INEMen arabera, 96.801 langabe daude orain, eta tasa %8,26an gelditu da

Erredakzioa | DONOSTIA

Langabezia tasa nabarmen hazi zen Hego Euskal Herrian urtarrean. INEMek emandako datuen arabera, 5.164 pertsona gehiago gelditu dira lanik gabe, aurreko hilean baino %5,6 gehiago. Langabezi tasa, berriz, %8,26an gelditu da.

Arabaren izan dituzte emaitza kaskarrenak, %9,77 hazi baita lan barik dauden kopurua urtarrean. 953 langabe gehiago daude orain, guztira 10.705. Nafarroan %5,95 hazi da langabezia, Gipuzkoan %5,24 eta Bizkaian %4,76.

Ohikoa da langabezi tasa urte hasieran haztea, Gabonetarako bakarrik kontratatutako beharginak lanik gabe gelditzen baitira, baina aurreko iaz baino gehiago hazi da urte hasieran lan barik dauden kopurua.

Ekonomia moteltzearen aurrean enpresaburuek hartutako jarrierari egotzi dio LAB sindikatuak langabezia hain nabarmen haztearen errua. Txomin Lorcak azaldu zuenez, «enpresaburuek aurreko urteetako irabaziak mantendu nahi dituzte kosta ahala kosta, eta horretarako langileak kalera botatzen ari dira, eta ez multinazionalak ba-

karrik, baita enpresa ertain eta txikiak ere».

Nafarroako Gobernuari aparteko kritikak egin dizkio, berriz, ELAk. 1.065 lagun gelditu dira lanik gabe bertan, abenduan baino %5,51 gehiago. Patronala eta UGT eta CCOO sindikatuekin batera sinatutako enplegu planak «porrot egin duela argi ikusten da» euskal sindikatuen ustez. «Plan horretan gastatutako 288,5 milioi euroek ez dute ezertarako balio izan, ekonomia-aren une hobereenetan ere ez baitute langabeziari aurre egiten jakin», ELAren ustez.

Neurri zehatzen beharra

UGT eta CCOOk, «neurri zehatz eta eraginkorrak» eskatu zituzkieten EAEko eta Nafarroako gobernuei. Aipatutako Enplegu Plana «berehala» martxan jartzeko eskatu zion CCOOk Nafarroako Gobernuari, «enplegu egonkor eta kalitatezko bat sortzeko hitzetatik ekin-tzetara pasatzeko garaia aspal-di pasatu zelako». Antzeko eskaria egin zion Eusko Jaularitzari, eta azken zazpi hilabeteetan EAEko langabezia %12,9 hazi dela oroitarazi zion.

«Behin-behineko enplegua eta prekarietatea eteteko» es-



EGUNKARIA

lazkoa baino nabarmenagoa izan da aurtengo urtarrean langabeziaren hazkundera.


Langabezia INEMen arabera

Hego Euskal Herrian

Abendua-urtarrila	96.801
Langabetu kopurua	
Langabetu gehiago	+5.164 (%5,63)

Langabezi tasa: 8,26

96.801 langabetu



Espainian

Abendua-urtarrila	1.651.728
Langabetu kopurua	
Langabetu gehiago	+76.884 (+%4,88)

Probintziak

Abendua	
Urtarrila	
ARABA	+953 (%9,77)
Langabetu gehiago	
9.752	
10.705	
BIZKAIA	+2.037 (%4,76)
Langabetu gehiago	
42.795	
44.832	
GIPUZKOA	+1.109 (%5,24)
Langabetu gehiago	
21.180	
22.289	
NAFARROA	+1.065 (%5,95)
Langabetu gehiago	
17.910	
18.975	

UGT

«Prekarietatea eteteko garaia da, ekonomiaren moteltzeak gisa horretako enpleguari eragiten baitio»

katu zuen UGTk, «ekonomia-aren egoerak berari eragiten baitio kalte gehien».

Espainian ere nabarmen hazi zen langabezia kopurua urtarrean, %4,8 hain justu. Iazko azken hilabeteetan baino 76.884 lagun gehiago daude lanik gabe, guztira 1.651.728 pertsona.

1993az geroztik izan duen hazkunderik handiena izan du Espainiako tasak urtarrean. Euroaren eremuko langabezi tasarik handiena du Espainiak, %12,9koa.

Muskizko Udala

IRAGARKIA

Udalbatzarrek, 2002ko urtarilaren 31n egindako ohiko bilkuran, «Lutxo Goitia» deritzon finkan Arak Subsidarioen xedapen-aldaketa egiteko proposamenaren berri eman ondoren, zein Sidepur-ek aurkeztu baitzuen, eta Lurralde Antolamendu, Etxe-bizitza eta Ingurumen Batzordearen irizpena ikusita, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengo: Hasieran onartzea «Lutxo Goitia» deritzon finkan udal Arak Subsidarioen xedapen-aldaketa egitea, zein Sidepur-ek aurkeztu baitzuen.

Bigarren: Erabakia jendaurrean jartzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hilabete batez agertuko den iragarki bidez; espedienteak aztertu nahi duen edozeinen eskura egongo da, eta alegazio egokiak ondorioztatu ahal izango ditu. Era berean, iragarkia Bizkaiko Lurralde Historikoko gutxienez egunkari batean jarriko da.

Hirugarren: Planeamenduen aldaketak eragindako Lurralde Historikoko zonetan lizentzien ematea aldi batez balio gabetzea, hartako erabaki berriek indarreko hirigintza erregimena aldatzea baitakarte.

Muskiz, 2002ko otsailaren 6a. Alkatea.
Sin.: Gualber Atxurra Pérez,
ALKATE UDALBURUA.



ORMAIZTEGIKO UDALA

IRAGARKIA

UDALERRIKO AA.SS.atik 18-TEILERI ZAHARRA AREAKO KONPENSASIZIO BATZORDEAN SARTZEKO ESKARIA EGIN EZ DUTEN JABEEN ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK DERRIGORREZ DESJABETZEKO ESPEDIENTEARI EKITEA.

2.002ko urtarilaren 17an Ormaiztegi Alkateak, zera ebatzi du:

LEHENIK: Jabeen, ondare eta eskubideen zerrendan agertzen diren eta lege ezarriko epeak igaro ondoren Ormaiztegi udalerriko planeamenduko Arak Subsidarioetako 18-Teiler Zaharra Areako Konpentsazio Batzordean sartzeko eskaria egin ez duten jabeen ondare eta eskubideen derrigorrezko desjabetzapea espedienteari hasiera ematea.

BIGARRENA: Ormaiztegi udalerriko planeamenduko Arak Subsidarioetako 18-Teiler Zaharra Areako Konpentsazio Batzordea desjabetzapean horren onuraduna izendatzea eta, ondorioz, bertako kideek beren ekarpenen proportzioan.

HIRUGARRENA: Jendaurrean ateratzea desjabetzapean erasandako jabeen izenak, ondasunak eta eskubideak, 15 egun baino lehen egoki irizten dizkien beren alegazioak egin eta Udak honerako Erregistro Nagusian aurkez ditzaitez.

LAUGARRENA: Desjabetzapean prozedurari sail bakoitzeko banan-banan ekitea.

Erabaki hau tramite bat besterik ez da, ez da ere behin betikoa, eta, beraz, ez zaio ezereen errekurtsorik tokatzen, nahiz eta nahi dena jar dakioken hala nahi izanaz gero.

Esandako epeak, bestetik, iragarki honen azken argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

LEGEZ EZARRIRIKO EPEAK IGARO ONDOREN ORMAIZTEGIKO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDARIOETAKO 18-TEILERI ZAHARRA AREAKO KONPENSASIZIO BATZORDEAN SARTZEKO ESKARIA EGIN EZ DUTEN JABEEN ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK DERRIGORREZ DESJABETZEKO ESPEDIENTEAK ERASANDAKO JABEEN IZENAK, ONDASUNAK ETA ESKUBIDEEN ZERRENTA

2. finka
Jabea: Juan Igartua Echaniz jauna.
Helbidea: Beasain bidea, 16. Ormaiztegi.
Azalera: 359 m².
Izaera Urbanoa.
Inskripzioa: 1.105 tomoa, Ormaiztegi 26. liburua, 131 orrialdea, 1.270 lursaila, 1. Inskripzioa.

3. finka
Jabea: Juan Igartua Echaniz jauna.
Helbidea: Beasain bidea, 16. Ormaiztegi.
Azalera: 785,29 m².
Izaera Urbanoa.
Inskripzioa: 1.105 tomoa, Ormaiztegi 26. liburua, 134 orrialdea, 1.271 lursaila, 1. Inskripzioa.

4. finka
Jabea: Labe Lan, S.L.
Helbidea: Beasain bidea, 15. Ormaiztegi.
Azalera: 1.077 m².
Izaera Urbanoa.
Inskripzioa: 1.283 tomoa, Ormaiztegi 29. liburua, 162 orrialdea, 1.385 lursaila, 1. Inskripzioa.

5. finka
Jabea: Carlos Oyarbide Albisu jauna.
Helbidea: Beasain bidea, 18. Ormaiztegi.
Azalera: 547,31 m².
Izaera Urbanoa.
Inskripzioa: 1.416 tomoa, Ormaiztegi 31. liburua, 92 orrialdea, 1.458 lursaila, 1. Inskripzioa.

Ormaiztegi, 2002ko urtarilaren 18an. Alkatea. Sin.: Itaki Maiora Ori.

N-634 Errepideko 56,400 K.P.an
Meliton Zubitik barrena Elgoibarrera
sartzeko bidean Biribilgunea
egiteko Proiektua (Gakoa: 2-I-48/2000)

2002ko urtarilaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 20 zk.an, argitaratu da ondorengo proiekturako behar diren lursailak Hartu Aurreko Aktak egiteko deialdia: N-634 ERREPIDEKO 56,400 K.PAN MELITON ZUBITIK BARRENA ELGOIBARRERA SARTZEKO BIDEAN BIRIBILGUNEA EGITEKO PROIEKTUA (2-I-48/2000).

Iragarkian, hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakatur ere ageri da.

Donostia, 2002ko otsailaren 4a



Gipuzkoako Foru Aldundia
Garraio eta Errepide Departamentua